



Joseba Sarrionandia

2013-XII-2

Maialen eta Aixerrota Institutuko Batx. 2E klasekoei

Esan didatenean Narrazioak leitu behar duzuela eskolan, sentsazio arraroa da, ez dakit zer esan: ‘eskerrik asko’, ‘barkatu’, ‘hor konpon’ edo ‘akabo’.

Zuen adina nuenean, literatura irakasle txarra eta ona izan genituen. Izan genuen bat esertzen zena eta, besterik gabe, klasiko espainolak irakurtzen zizkiguna, ozen, eta imintzioak eginez; ordubete ematen zuen, gu aspertuta, erdi lo edo gaiztakeriaren bat asmatzen genuen artean. Behin, halako nobela bat leitzen, “–¡Borrachona!, ¡Mala madre!”, esan zuen oihuka. Esaera hura ikasi genuen guk, eta ikasturtea amaitu arte errepikatzen genuen, “–¡Borrachona!, ¡Mala madre!”, patioan eta ikastetxetik kanpora ere. Esaera hori izan zela uste dut, “–¡Borrachona!, ¡Mala madre!”, kurtso hartan ikasi genuen literatura guztia.

Izan genuen beste irakasle bat, ostera, asko irakatsi ziguna. Zer den hizkuntza, zer den literatura konprenitzen asko lagundu ziguna; Galarreta deitzen zen, eta Iruñekoa zen. Gaztelera irakasten zuen, euskara heziketatik baztertuta zegoelako oraindik, baina Galarretak ez zuen euskara mespretxatzen behintzat. Hizkuntza bat eta literatura bat ondo irakasten dituenak ez ditu besteak gutxiesten. Espero dut suertea izango duzuela eta Galarretaren bat izango duzuela irakasle.

Narrazioei buruz, zer esango dizuet. Idazlea hil egiten da liburua argitaratzen denean, irakurleei uzteko autorearen lekua.

Hala ere, testuok idatzi zireneko testuingurua esplikatuko dizuet apur bat:

—Non eta noiz idatzi zen? Kartzelan idatzi zen 80tik 84ra. Carabanchel, Puerto de Santa Maria, Herrera de la Mancha; Espainiako mapan zeuden izen itsusi batzuk dira. Kartzela gogorra da edonorentzat, baina guri bereziki gogorra egin ziguten, era bateko eta besteko debekuekin.

Liburuko ipuinak ihesaldi literarioak direla konturatuko zarete. Imajinazio hutsa dira gehienak; esate baterako lehenengo ipuinean, non ez dagoen ezer, ez bada pertsonaia batzuk bata bestea asmatzen.

—Ze ideiarekin idatzi zen liburua? Literatura egiteko asmoarekin, baina euskara egoera larrian zegoen oraindik, debeku aldi luze batetik baitzatorren, auzo literatura espainol eta frantses handien aldamenean. Gure belaunaldikoak, euskara instituzioetan debekatuta zegoen sasoiari jaio eta eta joan ginenak eskolara, erdaraz hezi garenok, saiatu gara gure literatura munduko beste literatura batzuen mailan ipintzen.

Ni fikziozko munduak azaltzeko balizko lengoia lantzen ahalegindu nintzen, lengoia literario apur bat asmatuarekin. Justizia poetiko apur baten bila, bestelako justizia eskasa eta zaila izaten delako. Handiak eta txikiak izaten dira herriak eta pertsonak, hizkuntzak eta literaturak; ni txikien aldeko justizia poetikoa begiratzen ahalegindu naiz idatzi ahala. Esate baterako, badakizue, Arthur erregea inperioaren jabe zela. Munduan nagusi den literatura anglosaxoiko fundazio mitoa da Arthur erregearena; nik historiari atera eta handikeria horiek gabe ipini nuen gizon hori Mañariko dorretxe erdi jausi batean erbesteturik. Justizia poetiko horren ondorioz, kalean ikus daitezkeen besteen antzekoa da, ezta?

Dena dela, ez dakit zergatik ari naizen hizketan, idazlea liburua amaitutakoan hiltzen bada. Ni orain hogeita hamar urte hil nintzen eta, harrezkero, irakurleen eskuetan geratu da liburua, idazlea baino autoreagoa delako irakurlea.

Barkatu eta eskerrik asko.

Ondo ibili,

Joseba